

LANDA-EREMUA

HASIERA ORDUA: 19:06

BUKAERA ORDUA: 20:35

PARTE HARTZAILEAK:

18 pertsona (5 emakume, 13 gizon)

ORDEZKARI POLITIKOAK:

Natxo Urkixo (EHBILDU)

Ametz Meatza (EHBILDU)

Jon Ander Altube (EHBILDU)

Maidier Basterra Ibarretxe (EAJ-PNV)

Ander Añibarro (EAJ-PNV)

TEKNIKARIAK

Almudena Fernandez (Arkitektoa)

Laura Castresana (Arkitekto teknikoa)

Joseba Solaun (Obren arduraduna)

Jon Ander Gastaka (teknikaria)

Nerea Garaio

Arantza Barrenengoa

Publikoaren artean

-Iñigo Martínez Cerrillo (EH BILDU)

-Isabel Bóveda Urioste (EH BILDU)

Herritarra: Motxotekaleko herri bidea aipatu du, esanez konpondu egin zela hondeamakina baten bidez beteta eta orain ondo dagoela. Arazoa da traktorearekin igarotzean, une batean, itxitura batera irsiten zarela, han mugarría erdian dagoela eta ezin dela igaro.

Joseba: erantzun du bide hori ez dela sekula bereziki zabala izan. Hala ere, hobetu egin da (orgetarako bidea da).

Herritarra: esan du mugarría txarto jarrita dagoela, bidearen erdian.

Joseba: azaldu du asmoa zegoela Udalaren hondeamakina erabiltzeko bidea apur bat zabaltzeko, baina oraindik ezin izan dela hondeamakina ez zegoelako eskuragarri; dena den egingo da.

Jonan: esan du Udala planteatutako arzoa aztertzeko konpromisoa hartzen duela.

Herritarra: galdetu du mendietan basoberritzeak egingo diren eta, hala bada, zer espezie landatuko den.

Joseba: azterketa fasean dago basoberritze-proiektua. Ideia da hostozabal asko sartzea, baita koniferak ere.

Herritarra: ez dago ados koniferak landatzearekin.

Nerea: azaldu dio ideia okerra duela koniferak landatzearen komenigarritasunari dagokionez.

Herritarra: adierazi du Larrazabalen izeiak ipini zirela eta Udalarentzat diru-sarrerak ematen dituztela.

(Eztabaida pizten da koniferak landatzearen komenigarritasunaz. Udal langile teknikoek diote koniferak batzuetan beharrezkoak eta onuragarriak direla, hostozabalak zailagoak direla. Gainera, basoko etxearen inguruan eta beste zenbait zonaldetan naturalki ezarri dira espezie autoktonoak, besteak beste, haritzak eta bakanketa egitea aztertzen ari direla.

Herritarra: esan du Santa Luzian dagoen bazkalekuan landatu egin zela eta ez dela ezer geratzen.

Nerea: adierazi du arazoa izan zela ez zela inolako jarraipenik egin.

Herritarra: Motxotekaleko ura biltzeak ematen dituen arazoak planteatu ditu. Halaber, planteatu du aspaldi bihurtune formarekin egin zen sarrera bateko eskuin aldeko estolda batzuetan, ura indartsu jaisten denean salto egiten dutela eta pena dela azkenean errepidea hondatzen delako. Kasiletik behera datorren urarekin, edukiontzia dagoen tokian, alde lauan ur putzua sortzen da.

Joseba: Motxotekaleri dagokionez, aurreikusitako egin da sarrera bat egitea betoiz, ura errepidera atera dadila ekiditeko.

Laura: edukiontzia dagokionez, azaldu du hodi bat sartu zela ura azpiko aldetik igaro zedin.

Herritarra: adierazi duenez Andaluzeko aldapan, burdiren aurrean, edukiontzi batzuk daude zebrabidean eta oso egoera txarrean daude.

Joseba, Laura: ados daude oso txarto daudela esatearekin, aukera bat litzateke kentzea eta Toki On tabernara jaitea, mugitzea planteatu delako eta auzokideek ezezkoa eman dutelako.

Herritarrak: butanoaren lekutik gora errepidea nahiko estutzen da. Azaldu duenez, jendea ibiltzera joaten da, baita mugikortasun urriko pertsonak ere, bidegorria izanda hara doaz. Ohartarazi du egunen batean istripuren bat egongo dela eta iradoki du informazio sinale bat ipintzeko, oso bizkor igarotzen direlako autoak.

Herritarra: Renault enpresatik aurrera arekak estali dira eta oso ondo iruditzen zaio, baina handik gora ez dira ukitu duela denbora luze.

Joseba: adierazi du areketan lan egiteko talde berri bat osatu dela eta urtarrilean hasiko direla lanean; ia metro bat irabaziko da horrela errepiderako.

Herritarra: bideen garbitasuna zaintzeko beharra aipatu du pinuak moztu eta ateratzen direnean. Dagoeneko 4 txirrindulari ikusi ditu erortzen errepidearen egoeraren ondorioz. Iradoki du enpresen fidantzetatik kendu daitezkeela errepidea garbitzeko gastuak. Aipatu du bere iritziz mendietan mozketak egiten diren garaietan garbitze-lanak indartu behar direla.

Subijanako errepidea asfaltatu zenean, leku zehatz batean gelditu ziren eta galdetu du ideia lkastolara arte jaitea ote zen, baina dirua faltatu zen ala berrekitea aurreikusitua den.

Joseba: azaldu du ez zuela albisterik errepideen zikintasunari buruz, baina fidantzena zaila dela. Kontratua bukatzen denean begiratzen da dena ondo dagoen, fidantza itzuli aurretik.

Jonan: galdetu du ez ote litzatekeen hobe basoberritze tasa bat aplikatzea.

Herritarra: erantzun du azkenean tasa jabeak ordaintzen duela, ez zur-ekoizleak. Zur-ekoizleari tasa igotzen badiotza, prezio jaitsiko zaio jabeari.

Joseba: azaldu du Udalaren asmoa dela asfaltozko errepidea luzatzea barrurantz, lokatza ez dadin zuzenean atera errepidera. Halaber, esan du norbaitek horrelakoak ikusten dituztenean, deitzeko.

Herritarra: basetxeetako hondakin uren bideratzearen kontua zertan den galdetu du.

Laura: martxan jarriko den proiektu pilotua azaldu du. Hobi septikoa Udalaren jabetzako partzela batean egongo da, eta Udalak kudeatuko du. Aurrerago ikusiko da beste zonalde batzuk konekta daitezkeen. proiektu hauek har ditzaketen guneak ere identifikatuak daude. Santa Luzian erraza da, partzela Udalarena delako eta Udalak hartzen duela arduraren, baina udal partzelarik ez dagoen lekuetan, ez dakigu oraindik nola egingo den.

Herritarra: Udalari ahalegin txiki bat eskatu dio trukatzeko kontua arintzeko.

Amets: batzuk Hirigintzan daude baimentze-fasean, egun edo aste batzuen kontua da hori, eta beste bat, zehazki atzeratu egingo da Aldundiarekin dagoen trukatzearekin lotua dagoelako.

Herritarra: galdetu du nola izan liteke 1. poligonoan basoberritzea egitea dagoen abere-kargarekin eta ahuntzen arazoarekin. Egindako basoberritzetik ez da ezer geratzen, ez du zentzurik basoberritzen jarraitzeak. Egingo den inbertsioarekin, moratoria egin edo foru araudia errespetatu besterik ez dago. bestalde, eskatu du abere-bazaklekuen araudiko betekizunak argitzeko eskatu du, bere ustez, ez delako argia.

Amets: Udalak proposatu zuen ahuntzen moratoria bat, baina ez zen adostasunik lortu, esaten zutelako gainerako animaliek ere jaten dutela.

Nerea: adierazi du ahuntzak ez direla soilik Laudiokoak, beste herriekin hitzarmenak daude eta besteen ahuntzak ere badaude.

(ahuntzei eta menditik aske ibiltzen uztearen komenigarritasunari buruzko inguruko eztabaida hasi da, kopuruaren kontrola...).

Laura: azaldu du araua oraindik alda daitekeela. Baldintzak gehitzen dira: abere ustiatagia izatea, Laudioko biztanle izatea (ez da nahitaezkoa izango ordenantza jasotako gehienezko abere-kargara iritsi ez badira). Betekizunak betetzen dituzten pertsonen artean, lehentasunak daude, lehenik eta behin, abeltzaina izatea jarduera nagusi gisa, gaztea izatea...

Herritarra: iradoki dio kontua apur bat fintzea argi gera dadin, gauza batzuk ez daudelako argi.

Herritarra: adierazi du urte batzuen buruan, Laudion abeltzaintza erdira murriztuko dela, eta azpimarratu du abereen lanaren garrantzia.

Herritarra: planteatzen du abereak kontrolatuta egon behar direla, ezin da mendian ahaztu eta ahaztu.

Laura: gaia konpontzen saiatzen ari dira, baina zaila da. Gogora ekarri du ez garela soilik Laudioko abereez ari, beste udalerrri askotako abereak dauzkagu, baita animalia basatiak ere.

Herritarra: iradoki du zerbait egin behar dela basurdeen kopurua kontrolatzeko: ehiza-baimen gehiago, ehizaldi gehiago, zerbait.

Herritarra (**ehiza-barrutiaren arduraduna?**): Ehizaldi gehiago egin dira.

Herritarra: gogora ekarri du barrutia egiteko sinatu zuenean sinatu egin zela barrutiak hartuko zituela bere gain basurdeek eragindako kalteen gastuak.

Herritarra: azaldu duenez, Motxotekaleko errepidean zuhaitza arriskutsuak daude bihurtugetako ezpondetan.

Joseba: azaldu du hori jabetza pribatua dela eta jabeak egin behar duela. Kasurik egiten ez dutenei egikaritze-aginduak bidaliko zaizkie.

Herritarra: azaldu duenez, beste leku batzuetan kaiolak ipintzen dira basurdeak harrapatzeko. Hori egin liteke, eta baten bat harrapatzekotan, telefonoz eman liteke abisua.

Natxo: azaldu du arazoa dela gero basurdearekin zer egiten den. Basurdeen gehiegizko kopurua ez da soilik Laudioko arazoa.

Herritarra: aipatu du Laudioko egoeraren ondorioz, eremu mugakideek basurde ehizari buruzko legedia desberdina izatearen ondorioz eta urtegia gertu izatearen ondorioz, Laudio oso leku egokia da basurdeentzat.

Natxo: basurde bat harrapatzen bada eta sakrifikatzea erabakitzen bada, gainera, Oñatira eraman beharko litzateke.

Herritarra: Santa Luzia bidea adierazteko seinale bat ipini da, eskatzen du Goikogane eta Zabale ere barne hartzea, jendea nahastu egiten delako, etxe artean sartzen delako eta txakurrak daudenez...

Jonan: egingo da.

Herritarra: 3 bide daude: Barranketa, Lusurbeilada eta Santa Luzia eta eremua ezagutzen ez duen jendea okertu egiten da.

Natxo: Bizkaiko jende asko etortzen da, eta Kontrabandisten Bidea Aldundiak seinaleztatu du.